*Bigarrena:* Berrestea deialdi horren ondoriozko egintza guztiak; bereziki, onartutakoen, bazter utzitakoen eta eskaeran atzera egindakoen zerrenda. 2016ko maiatzaren 18ko 4252/2016 Foru Aginduaren bidez onartu zen zerrenda hori, eta foru agindu berean ezarri azterketaren eguna: irailaren 24a (97. Bizkaiko Aldizkari Ofizialea, maiatzaren 23koa).

*Hirugarrena:* Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 54. eta 89. artikuluetan aurreikusitako ondoreetarako, ebazpen honen azalpen-zatia ebazpenaren aurrekaria eta arrazoitzea da.

*Laugarrena:* Otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 61.2.a) artikuluaren arabera, Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren foru diputatuak deialdia tramitatzeko beharrezkoak diren ebazpenak emango ditu, karrerako funtzionario-izendapena izan ezik, izendapena egitea Foru Aldundiari dagokio eta, aipatu foru arauko 17. artikuluaren 1. paragrafoko 3. zenbakian ezartzen denaren arabera.

*Bosgarrena:* Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta www.bizkaia.eus webgunean argitaratzea.

Bilbon, 2016ko ekainaren 17an.

Herri Administraziorako
eta Erakunde Harremanetarako foru diputatua,
IBONE BENGOETXEA OTAOLEA

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ

(I-750)

*Segundo:* Mantener todos los actos derivados de la misma y en especial la lista de admisiones, exclusiones y desistimientos aprobada mediante Orden Foral 4252/2016 de 18 de mayo («Boletín Oficial de Bizkaia» número 97, de 23 de mayo) y en la que así mismo se fija la fecha de examen el próximo 24 de septiembre.

*Tercero:* A los efectos previstos en los artículos 54 y 89 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, sirve de antecedente y motivación a la presente resolución la parte expositiva de la misma

*Cuarto:* De conformidad con el artículo 61.2.a) de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, la diputada foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales, adoptará las resoluciones pertinentes para la tramitación de la convocatoria, excepto el nombramiento en el funcionariado de carrera, por corresponder a la Diputación Foral conforme a lo dispuesto en el número 33 del apartado 1.º) del artículo 17 de la citada Norma Foral.

*Quinto:* Publicar este Decreto Foral en el «Boletín Oficial de Bizkaia» y en www.bizkaia.eus

En Bilbao, a 17 de junio de 2016.

La diputada foral de Administración Pública
y Relaciones Institucionales,
IBONE BENGOETXEA OTAOLEA

El Diputado General,
UNAI REMENTERIA MAIZ

(I-750)

•

## Gizarte Ekintza Saila

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 113/2016 FORU DEKRETUA, ekainaren 21ekoa, mendetasun-egoeran dauden adinekoak eguneko zentroetan sartzeko sistema eta dagozkien banakako laguntza ekonomikoak arautzen dituena.**

ZIOEN AZALPENA

Abuztuaren 22ko 145/2001 Foru Dekretuaren xedea da hauek arautzea: inoren menpeko adinekoentzako eguneko zentroetan sartzeko sistema, zentro horien titulartasuna Bizkaiko Foru Aldundiak duenean; beste titulartasun bat duten eguneko zentroetako plaza itundu edo hitzartuetan sartzeko sistema, betiere zentro horiek Bizkaiko Lurralde Historikoan daudenean, eta inoren menpeko adinekoentzako diren titulartasun publikoko zein pribatuko eguneko zentroetako plaza ez-itunduak nahiz ez-hitzartuak betetzeagatik ordaindu beharreko kostua ordaintzeko banakako ekonomi laguntzen emakida, betiere zentro horiek Bizkaiko Lurralde Historikoan daudenean.

Foru dekretu hori onartu ondoren, aldaketa garrantzitsuak egon dira legeetan. Besteak beste, hauek nabarmendu behar dira: Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea argitaratu da (haren bidez, Zerbitzuen Euskal Sistemak bete behar duen arau-esparru berria ezarri zen), eta, orain dela gutxi, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretua onetsi da.

Gizarte-zerbitzuen foru-politikak etengabeko arreta ematera eta zerbitzu osagarriak erabiltzera bideraturik daude, horrela mendekotasun-egoeran dauden pertsonek, ahal den neurrian, komunitatean integraturik jarrai dezaten. Testuinguru horretan, funtsezkoa da eguneko zentroen eginkizuna, zeren zerbitzu profesional bat ematen baitute, komunitatean heda litezkeen beste laguntza formal zein informal batzuen osagarri.

Bestalde, beharrezkoa izaten da, mendekotasun-egoeretan batez ere, askotariko laguntzak eta zerbitzuak garatzea, ez dadin familiaren eskuetan bakar-bakarrik geratu zaintza-lana. Eguneko egoitzen bidez, indartu egiten da erantzukizun publikoaren neurri-sorta bat, zeinaren bidez bideragarri egin nahi baita zaintza informala, erantzukizuna partekatuz, horrela hobeto lortzeko honako helburu hauek: osasunaren babesa, familia-bizitza eta zaintza uztartu ahal izatea, eta kalitatea eta berdintasuna lortzea adinekoen zaintza-lanean.

•

## Departamento de Acción Social

**DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 113/2016, de 21 de junio, por el que se regula el acceso a centros de día para personas mayores en situación de dependencia y sus ayudas económicas individuales.**

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El Decreto Foral 145/2001, de 22 de agosto tiene por objeto la regulación del sistema de acceso a centros de día para personas mayores dependientes, cuya titularidad ostente la Diputación Foral de Bizkaia, o a plazas convenidas o concertadas en centros de día para personas mayores dependientes de otra titularidad, situados en el Territorio Histórico de Bizkaia así como la regulación de la concesión de ayudas económicas individuales para sufragar el coste de la ocupación de plazas no convenidas o concertadas de centros de día para personas mayores dependientes, de titularidad pública o privada, situados en el Territorio Histórico de Bizkaia.

Tras su aprobación se han ido producido importantes cambios legislativos, entre ellos cabe destacar la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, que estableció el nuevo marco normativo al que debía ajustarse el Sistema Vasco de Servicios Sociales y el recientemente aprobado Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

Las políticas forales de servicios sociales se orientan a facilitar un continuo de atención y el uso de servicios complementarios que posibiliten, en la mayor medida posible, la permanencia de las personas en situación de dependencia en el ámbito comunitario. En este contexto, los centros de día cumplen una función central en la provisión de un servicio profesional complementario a otros cuidados formales o informales que se pueden desplegar en el entorno comunitario.

Por otro lado, resulta necesario, especialmente en situaciones de dependencia, el desarrollo diversificado de apoyos y servicios que no hagan recaer única y exclusivamente en la familia las labores de cuidado. Los centros de día vienen a reforzar una serie de medidas de responsabilidad pública que quieren hacer viable el cuidado informal, desde la responsabilidad compartida, para alcanzar mejor los objetivos de protección de la salud, conciliación de la vida familiar y la calidad e igualdad en el cuidado de las personas mayores.

cve: BAO-BOB-2016a121

Beraz, dekretu honek honako aldaketa nagusi hauek dakartza: erabiltzaileei laguntza emateko zonifikazio berri bat gehitu da, Gizarte Zerbitzuen Euskal Legean ezarritako plangintza-tresnen ondoriozko gizarte-zerbitzuen mapan oinarritzen dena, eta nabarmenki malgutu dira zerbitzuaren erabilera-modalitateak. Horretarako, zerbitzua garraiorik gabe erabiltzeko eta zerbitzua asteburuetan ere erabiltzeko aukera egongo da.

Pertsonen beharrizanetarako egokiak diren neurriak hartuko dira beti, eta haien lehentasunak kontuan hartu dira, betiere preskripzio teknikoaren araberakoak badira eta baliabide nahikorik badago.

Aurrekoa dela bide, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 17 eta 64.3 artikuluek emandako ahalmenak erabiliz, Gizarte Ekintza Saileko diputatuak proposatuta, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2016ko ekainaren 21eko bileran eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

**XEDAPEN OROKORRAK**

**1. artikulua.—*Xedea***

Foru dekretu honen xedea da Bizkaiko Lurralde Historikoan dauden eguneko zentroetan sartzeko sistema arautzea. Halaber, foru dekretu honen bidez, lurralde horretan dauden eguneko zentroetan sartzeko banakako laguntza ekonomikoak nola eman arautzen da.

**2. artikulua.—*Mendekotasun egoeran dauden adinekoen eguneko zentroa: definizioa, izaera eta xedea***

1. Zerbitzu horrek banakako arreta integrala eskaintzen die mendetasun-egoeran dauden pertsonei, egunez, aldi baterako zein modu iraunkorrean, haien autonomia pertsonala hobetu edo mantentzeko, izan ditzaketen muga funtzionalak konpentsatzeko eta haien ohiko zaintzaileei laguntzeko. Hori guztia egiteko, prestazio prebentiboak, pertsonak gaitzeko eta haiei laguntzekoak eskaintzen dizkiete, baliabideak gara ditzaten beren autonomia pertsonalerako eta gizartean parte hartzeko.

2. Intentsitate ertain eta handiko zentroa da, non bermaturik dagoen:

a) zaintzaileak etengabe daudela bertan zentroa zabalik dagoen orduetan;

b) mediku- eta erizaintza-zerbitzua ematen dela, hala behar izanez gero;

c) profesional talde multidisziplinario baten laguntza izango dela, eta haien profila egokia dela ongizate fisiko, psikologiko eta sozialera bideraturiko arreta integral bat eskaintzeko.

3. Eguneko zentroek indarreko legeria bete behar dute, osasun, arkitektura, hirigintza, lan, segurtasun eta garbitasunaren inguruko arauei dagokienez.

4. Ez dira hartuko mendetasun-egoeran dauden adinekoentzako eguneko zentrotzat erretiratuentzako etxeak eta klubak, ezta egoitzetan egunez egoteko zerbitzua ere.

5. Eguneko zentroak zonaka banatuko dira, eta, ondorioz, une bakoitzean ezartzen zaien eraginpeko lurralde-eremuan bizi diren erabiltzaileak artatuko dituzte. EAEko gizarte-zerbitzuen mapan ezarritakoaren arabera, 3. eranskinean aurreikusitakoak izango dira eragin-eremuok.

Hala ere, salbuespen gisa, eragin-eremu horretatik kanpo bizi den erabiltzailea artatu ahal izango dute, pertsona horren egoera familiarrak eta pertsonalak hala egitea gomendatzen duten kasuetan.

Por tanto, las principales modificaciones que realiza el presente Decreto, además de incorporar una nueva zonificación para la atención de las personas usuarias acorde al mapa de servicios sociales emanado de las herramientas de planificación previstas en la Ley Vasca de Servicios Sociales, incorpora una importante flexibilización en las modalidades de uso del servicio, incorporando la posibilidad del uso del mismo sin transporte y su extensión a los fines de semana.

Se adoptarán siempre las medidas que resulten idóneas a las necesidades de las personas, teniendo en cuenta sus preferencias siempre y cuando se ajusten a la prescripción técnica y a los recursos posibles.

En su virtud y en uso de las facultades que me han sido conferidas por los artículos 17 y 64.3 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, a propuesta de la diputada foral de Acción Social y previa reunión y deliberación del Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia en su reunión de fecha 21 de junio de 2016.

DISPONGO:

CAPÍTULO I

**DISPOSICIONES GENERALES**

**Artículo 1.—*Objeto***

El presente Decreto Foral tiene por objeto la regulación del sistema de acceso a centros de día situados en el Territorio Histórico de Bizkaia. Asimismo por medio del presente decreto se regula la concesión de ayudas económicas individuales para el ingreso en centros de día ubicados en el citado territorio.

**Artículo 2.—*Definición, naturaleza y finalidad de centro de día para personas mayores en situación de dependencia***

1. Este servicio ofrece, con carácter temporal o permanente, una atención individualizada e integral, durante el periodo diurno a las personas mayores en situación de dependencia, con el objetivo de mejorar o mantener su nivel de autonomía personal, compensar sus limitaciones funcionales y dar apoyo a sus cuidadores y cuidadoras habituales, mediante prestaciones preventivas, habilitadoras y asistenciales orientadas a la capacitación y al desarrollo de competencias para la autonomía personal y para la participación en el entorno comunitario.

2. Es un servicio de media y alta intensidad que garantiza:

a) la presencia permanente de personal cuidador durante las horas de apertura;

b) la prestación de un servicio médico y de enfermería, en su caso;

c) el apoyo de un equipo multidisciplinar de profesionales con los perfiles idóneos para la prestación de una atención integral orientada al bienestar físico, psicológico y social.

3. Los centros de día deberán cumplir la legislación vigente en cuanto a normas sanitarias, arquitectónicas, urbanísticas, laborales y de seguridad e higiene.

4. No se considerarán centros de día para personas mayores en situación de dependencia los hogares y clubes de jubilados ni el mero servicio de estancia en régimen diurno en residencias.

5. Los centros de día tendrán carácter zonificado, de tal manera que atenderán a aquellas personas usuarias que tengan su domicilio en el área territorial de influencia que se les asigne en cada momento. Estas áreas de influencia, acordes con lo previsto en el mapa de servicios sociales de la CAPV, serán las previstas en el Anexo 3.

No obstante con carácter excepcional, podrán atender a una persona usuaria fuera de su área de influencia, cuando las circunstancias familiares y personales del mismo así lo aconsejen.

cve: BAO-BOB-2016a121

6. Mendetasun-egoeran dauden adinekoentzako eguneko zentroek plaza mota bi eskainiko dituzte, erabiltzaileen profilaren arabera:

— Plaza psikogeriatrikoak: narriadura kognitiboa eta/edo buruko gaixotasuna duten adinekoentzat.

— Mendetasun fisikoa dutenentzako plazak: narriadura kognitiborik ez duten eta mendetasun fisikoren bat baduten adinekoentzat.

7. Lehenengo eranskinean jasotzen diren zerbitzu-motak eskainiko dira.

8. Malgutasun-printzipioen arabera jokatuko da eguneko zentroetan, horrela erabiltzaileen beharrizan eta lehentasunetara hobeto egokitzeko zerbitzuak.

**3. artikulua.—*Zerbitzua ematea***

1. Testu arauemaile honen helburua den zerbitzua eguneko zentroen arloan indarrean dagoen arautegian xedatutakoaren arabera emango da, baita arau hauek kontuan hartuta ere: Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretua, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea, lege horiek garatzen dituen arautegia, foru dekretu hau eta aplikatu beharreko gainerako arautegia.

Horrez gainera, babes berezia eskainiko zaie desgaitasuna duten pertsonei eta familia barruko indarkeriaren biktima diren pertsonei.

2. Eguneko zentroan zerbitzu hauek eskainiko dira, gutxienez:

1) Gizarte-zerbitzuen arlokoak:

a) Jarraipen-balioespena.

b) Bitartekaritza - bitartekotza.

c) Arreta pertsonala.

— Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko eskuhartzea.

— Laguntasun soziala.

— Garraio egokitua, behar izanez gero, erabiltzaileen mugikortasun-zailtasunen arabera eta/edo garraio publikoa erabilita zentrora iristeko zailtasunen arabera.

2) Osagarriak: garbitasuna. Mantenua, hala badagokio.

3) Osasunaren arloan: erabiltzaileen osasun-premien prebalentzia eta intentsitatea kontuan hartuta, zerbitzu honek osasun-sistemaren berezko prestazioak eskaini ahal izango ditu.

II. KAPITULUA

**ERABILTZAILEAK**

**4. artikulua.—*Erabiltzailea***

Eguneko zentroaren erabiltzaile izan daitezke eskabidea aurkeztean honako ezaugarri hauek dituzten pertsona guztiak:

1. Hirurogei (60) urte beteta izatea eskabidea aurkezten den egunean.

Honako hauek salbuetsita egongo dira baldintza hori betetzetik: mendetasun-egoera aitortuta duten pertsonak, dekretu honen 2. artikuluan ezarritako eguneko zentroetako batean bete ahal diren laguntza-beharrak eta zainketa-beharrak badituzte.

2. Mendetasuna duen pertsonaren kalifikazioa lortzea, mendetasuna ebaluatzeko baremoan (MEB) 39 puntu baino gehiagorekin, Mendetasun egoera aitortzeko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 1eko 162/2009 Foru Dekretuan zein dekretu horren aldaketetan eta hura ordezkatzen duen foru-araudian xedatutakoaren arabera egindako ebaluazioaren ondorioz.

3. Arreta eskaintzeko banakako programan eskatzailearentzat baliabiderik egokiena eguneko zentroa dela jasotzea.

6. Los centros de día para personas mayores en situación de dependencia ofrecerán dos tipos de plaza según el perfil de las personas usuarias:

— Plazas psicogeriátricas: destinadas a las personas mayores con deterioro cognitivo y/o enfermedad mental.

— Plazas de dependencia física: destinadas a las personas mayores sin deterioro cognitivo y que presenten algún tipo de dependencia física.

7. Las modalidades del servicio serán las previstos en el Anexo 1.

8. En el funcionamiento de los centros de día se aplicarán criterios de flexibilidad que permitan una utilización del servicio más adaptada a las necesidades y preferencias de la persona usuaria.

**Artículo 3.—*Prestación del servicio***

1. La prestación del servicio objeto del presente texto normativo se realizará de conformidad con lo dispuesto en la normativa vigente en materia de centros de día, con lo establecido en la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, el Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios sociales, la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y la normativa que las desarrolle, así como con el presente Decreto Foral y demás normativa que sea de aplicación.

Asimismo se prestará especial protección a las personas con discapacidad y a las personas víctimas de violencia intrafamiliar.

2. En el centro de día se dispensarán, al menos, las siguientes prestaciones:

1) De Servicios sociales:

a) Valoración de seguimiento.

b) Mediación - intermediación.

c) Atención personal.

— Intervención socioeducativa y psicosocial.

— Acompañamiento social.

— Transporte adaptado, cuando resulte necesario en razón de las dificultades de movilidad de las personas usuarias y/o de las dificultades de acceso al centro por transporte público.

2) Complementarias: aseo. Manutención, en su caso.

3) De Salud: atendiendo a la prevalencia e intensidad de las necesidades sanitarias de las personas usuarias este servicio podrá ofrecer prestaciones propias del sistema sanitario.

CAPÍTULO II

**LAS PERSONAS USUARIAS**

**Artículo 4.—*Persona usuaria***

Podrán ser personas usuarias del centro de día todas las personas que reúnan, en el momento de la presentación de la solicitud, las siguientes características:

1. Tener 60 años cumplidos en la fecha de la presentación de la solicitud.

Podrá exceptuarse del cumplimiento de este requisito aquellas personas que tengan reconocida su situación de dependencia y que tenga necesidades asistenciales y de cuidado que puedan ser cubiertas en uno de los centros de día previstos en el artículo 2 de este Decreto.

2. Obtener la calificación de persona en situación de dependencia con puntuación superior a 39 puntos en el BVD como resultado de la valoración realizada en virtud de lo dispuesto en el Decreto Foral 162/2009, de 1 de diciembre, de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se regula el procedimiento para el reconocimiento de la situación de dependencia, y sus modificaciones, o normativa foral que lo sustituya.

3. Que el Programa Individual de Atención recoja el de centro de día como el recurso más idóneo para la persona solicitante.

cve: BAO-BOB-2016a121

III. KAPITULUA

## EGUNEKO ZENTROAN SARTZEKO LAGUNTZA EKONOMIKOA EMATEKO ADMINISTRAZIO-PROZEDURA

### 5. artikulua.—*Laguntzak eskuratzeko prozedura*

Eguneko zentroan sartzeko, foru dekretu honen hurrengo artikuluetan araututako sartzeko prozedura aplikatuko da.

### 6. artikulua.—*Prozeduraren hasiera*

1. Oro har, prozedura hasteko, mendetasuna ebaluatzeko edo berrikusteko edo lekuz aldatzeko eskabidea aurkeztu beharko da.

2. Mendetasunaren Ebaluazio eta Orientazio Zerbitzuak espedientea izapidetu ondoren, Gizarte Ekintzako foru diputatuak prozedura ebazteko foru agindua emango du, non beren-beregi agerraraziko duen eguneko zentroa dela baliabiderik egokiena.

Halaber, beharrezkoak diren datu ekonomiko guztiak jasota badaude, ebazpen horretan eguneko zentroan sartzeko emango den laguntza ekonomikoaren zenbatekoa finkatuko da, baita zerbitzuari lotutako prestazioaren zenbatekoa ere, indarreko arautegian hala ezartzen bada.

3. Salbuespen gisa, eskatzailearen datu ekonomiko guztiak eskuratu ezin direnean, ebazpenean laguntza ekonomiko hori izateko eskubidea jasoko da, baina gerora egingo den ebaluazio ekonomikoaren mende dagoela agerraraziko da. Ebaluazio hori Zentroen Zerbitzuak edo administrazio-unitate eskudunak egingo du ebaluazio hori.

4. Eskatutako dokumentazio ekonomikoa aurkezten ez bada, itxi egingo da prozedura.

5. Dokumentazioa aurkeztu eta aztertu ondoren, Gizarte Ekintzako foru diputatuak ebazpena emango du. Ebazpen horretan jasoko den laguntza ekonomikoaren zenbatekoa finkatuko da, baita zerbitzuari lotutako prestazioaren zenbatekoa ere, indarreko arautegian hala ezartzen bada.

6. Aurreko 2. eta 5. zenbakietan jasotako emakidari buruzko ebazpenean adieraziko da onuraduna plaza esleitzeko prozesuan sartu dela. Hala ere, ebazpen honek ez du ekarriko, berez, eguneko zentro batean sartzea, horretarako ezinbestekoa delako plaza hutsak egotea.

7. Salbuespenezko kasuetan, interesdunak eskabidea eredu normalizatuan (2. eranskina) bete beharko du. Administrazio-unitate eskudunak espedientea izapidetzeko, honako dokumentazio hau aurkeztu behar da, baldin eta Gizarte Ekintza Sailak lehendik ez badauka:

a) Eskatzailearen eta, hala badagokio, legezko ordezkariaren NANaren edo, halakorik ezean, nortasuna egiaztatzeko beste edozein agiriren fotokopia.

b) Bizikidetza-unitateko kide guztien NANaren fotokopia edo, halakorik ezean, haien nortasuna egiaztatzeko beste edozein agirirena.

c) Eskatzaileak desgaitasuna badu, haren izenean eskaera aurkezten duen pertsonak esleituta duen legezko ordezkaritzaren egiaztagiria.

d) Medikuaren txostena, foru dekretu honen IV. eranskineko ereduaren arabera egina.

e) Bizikidetza-unitatearen osaera ziurtatzen duten agiriak, 18-28 urte bitarteko (adin biak barne) seme-alabak langabezian edo ikasten daudela frogatzen duten agiriak, desgaitasun-gradua frogatzen dutenak, eta abar.

f) Eskatzailearen taldeko erroldatze-ziurtagiria, eskabidea aurkeztean auzotasun administratiboa Bizkaiko Lurralde Historikoan duela frogatzen duena.

g) Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak edo bestelako pentsio edo sarreren erakunde ordaintzaileak egindako ziurtagiria. Bertan, eskatzaileak jasotzen dituen pentsio edo sarreren urteko zenbatekoa eta, halakorik jasoz gero, aparteko soldaten kopurua agertu behar dira. Eta, hala badagokio, bizikidetza-unitateko kideek jasotzen dituztenak ere agertu beharko dira.

CAPÍTULO III

## PROCEDIMIENTO ADMINISTRATIVO PARA LA CONCESIÓN DE LA AYUDA ECONÓMICA PARA INGRESO EN CENTRO DE DÍA

### Artículo 5.—*Procedimiento de acceso*

El acceso al centro de día se realizará por medio del procedimiento de acceso regulado en los siguientes artículos del presente Decreto Foral.

### Artículo 6.—*Inicio del procedimiento*

1. El procedimiento se iniciará, con carácter general, mediante la correspondiente solicitud de valoración, revisión o traslado de la dependencia.

2. Tramitado el expediente por parte del Servicio de Valoración y Orientación de la dependencia, se dictará por la/el diputada/o foral de Acción Social Orden Foral resolutoria en la que se hará constar expresamente el centro de día como recurso más idóneo.

Asimismo y siempre que consten todos los datos económicos necesarios, en la citada resolución, se fijará el importe de la ayuda económica a percibir para el ingreso en el centro de día, así como su correspondiente cuantía de prestación vinculada al servicio si así se estableciera en la normativa vigente.

3. Excepcionalmente, para aquellos supuestos en que no pueda accederse a la totalidad de los datos económicos de la persona solicitante, en la resolución se recogerá el derecho a la citada ayuda económica aunque se hará depender la misma de la valoración económica posterior que será realizada por el Servicio de Centros o unidad administrativa competente.

4. La falta de aportación de la documentación económica solicitada llevará aparejado el cierre del procedimiento.

5. Una vez aportada la documentación y revisada la misma, se dictará por la/el diputada/o foral de Acción Social la correspondiente resolución fijando el importe de la ayuda económica a percibir así como su correspondiente cuantía de prestación vinculada al servicio si así se estableciera en la normativa vigente.

6. La resolución de concesión recogida en los apartados 2 y 5 anteriores señalará que la persona queda incorporada al proceso de asignación de plaza. No obstante lo anterior, esta resolución no supondrá el ingreso efectivo en un centro de día, ya que éste quedará condicionado a la existencia de plazas vacantes.

7. En casos excepcionales, la persona interesada deberá cumplimentar su solicitud en el modelo normalizado al efecto (Anexo 2). Para la tramitación del expediente por parte la unidad administrativa competente será necesario presentar la siguiente documentación, siempre y cuando no esté en poder del Departamento de Acción Social:

a) Fotocopia del DNI, o, en su defecto, de cualquier otro documento acreditativo de la personalidad de la persona solicitante y, en su caso, del representante legal.

b) Fotocopia del DNI, o, en su defecto, de cualquier otro documento acreditativo de la personalidad de cada miembro de la unidad de convivencia.

c) En caso de incapacidad, la documentación acreditativa de la representación legal que tenga atribuida la persona que presente la solicitud en nombre de la persona incapaz.

d) Informe médico elaborado conforme al modelo del Anexo 4 del presente Decreto Foral.

e) Documentos acreditativos, en su caso, de la composición de la unidad de convivencia, certificados de estar en paro o estudiando los hijos/as entre 18 y 28 años, inclusive, certificados de grado de discapacidad, etc.

f) Certificado o volante de empadronamiento colectivo de la persona solicitante en el que conste su vecindad administrativa en el Territorio Histórico de Bizkaia en el momento de la presentación de su solicitud.

g) Certificado de pensión del Instituto Nacional de la Seguridad Social y/o entidad pagadora de otra/s pensión/es e ingresos, referido al importe anual de los mismos, así como al número de pagas extraordinarias, en su caso de la persona solicitante y, en su caso, de los y las miembros de la unidad de convivencia.

cve: BAO-BOB-2016a121

h) Eskatzailearen eta, halakorik badago, bizikidetza-unitateko kideen izenean dauden kontu korronte, diru-gordailu, balore higigarri eta antzekoetan egindako mugimenduen ziurtagiria edo laburpena.

i) Borondatezko ordezkaritzaren edo egitatezko zaintzaren agiria.

Eskatutako dokumentazioa aurkezten ez bada, itxi egingo da prozedura.

Eguneko zentroan sartzeko banakako laguntza ekonomikoa jaso zain dagoen denboran, interesdunak zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea izango du, eguneko zentro pribatu batean izan dezakeen egonaldia ordaintzeko, prestazio hori arautzen duen arautegian ezarritako betekizun, epe eta baldintzen arabera.

**7. artikulua.—*Uko egitea***

Erabiltzaileak uko egin diezaioke bere eskubideari. Horretarako, uko egiteko borondatea jasota geratzea ahalbidetzen duen edozein bitarteko erabili ahal izango du, uko egiteko borondatea adierazi zaion funtzionarioak sinatutako eginbidea barne (uko egiteko nahia bertara joanda edo telefonoz adieraz daiteke). Hala ere, uko egiteko borondatea telefonoz adierazten denean, funtzionarioak behar diren egiaztapenak egin beharko ditu bide horretatik adierazitako asmoaren benetakotasuna berresteko, eta inguruabar hori jaso beharko du.

Halaber, interesdunak dagokion eskubideari isilbidez uko egiten diola ulertuko da bere egintza eta jokabideetatik argi eta zalantzarik gabe ondorioztatzen bada asmo hori duela. Isilbidezko uko egite hori zentroko langile arduradunak sinatutako idazki batean edo, bestela, funtzionario batek sinatutako eginbide batean jaso beharko da. Dokumentu horretan berariaz jaso beharko dira uko egiteko asmoa erakusten duten interesdunaren edo haren legezko ordezkariaren egintzak edo jokabideak.

IV. KAPITULUA

**ZERBITZUAREN KOSTUA, BANAKAKO LAGUNTZA EKONOMIKOEN KALKULUA ETA BERRIKUSPENA**

**8. artikulua.—*Gehieneko kostua***

Eguneko zentroko plazen gehieneko kostu teorikoa urtero finkatuko da, foru agindu bidez.

Baldin eta plazaren benetako kostua kostu teoriko maximoa baino txikiagoa bada, benetako kostua hartuko da kontuan.

Gehieneko kostu teoriko hori eguneko zentroa irekita dagoen egun bakoitzeko aplikatuko da, alegia, dagozkion zerbitzuak emateko eran dagoen guztietan.

**9. artikulua.—*Finantziazioa***

1. Zerbitzuaren erabiltzaileak urte bakoitzerako egin beharreko eguneko ekarpena kalkulatzeko, zerbitzuaren kostua (zenbat euro egunean) eta erabiltzaile horren gasturako eguneko ahalmena hartuko dira kontuan. Erabiltzailearen ahalmen ekonomiko pertsonalaren edo, hala bada, hurrengo artikuluan definitutako bizikidetza-unitateko kideek per capita duten eguneko ahalmen ekonomikoaren portzentaje bat joko da gasturako eguneko ahalmena. Portzentaje hori beren-beregi onartuko den foru dekretu batean jasoko da.

Edonola ere, erabiltzailearen eguneko gastu-ahalmena -aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera kalkulaturik- zerbitzuaren eguneko kostuaren %90 baino gehiago bada, erabiltzailearen ekarpena zerbitzuaren eguneko kostuaren %90 izango da.

2. Errentaren arabera zehaztuko da pertsona baten eguneko ahalmen ekonomikoa edo, hala bada, bizikidetza-unitateko kideek per capita duten eguneko ahalmen ekonomikoa (kasu horretan ere zenbat euro egunean). Honela kalkulatuko da: urteko sarreren zenbateko osoa zati urteari dagokion egun kopurua.

h) Certificado o extracto de movimientos de todas las cuentas corrientes, depósitos dinerarios, valores mobiliarios, etc., a nombre de la persona solicitante a la fecha de presentación de la solicitud y, en su caso, a nombre de las personas integrantes de su unidad de convivencia.

i) Documento de representación voluntaria o de guarda de hecho.

La falta de aportación de la documentación solicitada llevará aparejado el cierre del procedimiento

Durante el periodo de tiempo que la persona interesada se encontrara a la espera de recibir la ayuda económica individual para ingresar en el centro de día tendrá derecho a percibir la prestación económica vinculada al servicio, para el abono de su posible estancia en un centro de día privado, en los términos y con las condiciones establecidas en la normativa específica que regule, en su caso, dicha prestación.

**Artículo 7.—*Renuncia***

La persona usuaria podrá renunciar a su derecho por cualquier medio que permita dejar constancia de su voluntad, incluida diligencia suscrita por el funcionario o la funcionaria ante quien se hubiera manifestado la voluntad de renuncia realizada de forma presencial o por vía telefónica. No obstante, en el supuesto de renuncia manifestada por vía telefónica el funcionario o la funcionaria deberá realizar las comprobaciones posteriores oportunas que le permitan corroborar la autenticidad de la renuncia realizada por dicha vía y hacerlo constar.

Asimismo, se entenderá que la persona interesada renuncia tácitamente a su derecho cuando de sus actos o comportamiento pueda deducirse válidamente y sin posibilidad de equívoco dicha voluntad. Dicha renuncia tácita deberá hacerse constar en escrito suscrito por personal responsable del centro o diligencia emitida por personal funcionario, en su caso, en la que queden recogidos, de forma expresa, los actos o comportamiento atribuidos a la persona interesada o, a su representante legal, que permitan deducirla.

CAPÍTULO IV

**COSTE DEL SERVICIO, CÁLCULO Y REVISIÓN DE LAS AYUDAS ECONÓMICAS INDIVIDUALES**

**Artículo 8.—*Coste máximo***

El coste teórico máximo para las plazas de centro de día se fijará anualmente mediante el correspondiente Decreto Foral.

En el caso de que el coste real de la plaza sea inferior al coste teórico máximo se tomará en cuenta el coste real.

Este coste teórico máximo se aplicará por cada día que el centro de día permanezca abierto y esté en disposición de prestar los servicios correspondientes.

**Artículo 9.—*Financiación***

1. La aportación económica diaria correspondiente a la persona usuaria del servicio se calculará, para cada año natural, en función del coste del servicio en euros/día y de su capacidad de gasto diaria, entendida ésta como un porcentaje de su capacidad económica personal diaria o, en su caso, de la capacidad económica per cápita diaria de la unidad de convivencia definida en el siguiente artículo. Dicho porcentaje será recogido en el correspondiente Decreto Foral aprobado al efecto.

En cualquier caso, si la capacidad de gasto diaria de la persona usuaria, calculada conforme a lo dispuesto en el párrafo anterior, superara el 90% del coste diario del servicio, la aportación de la persona usuaria será igual al 90% del coste diario del servicio.

2. La capacidad económica personal diaria o, en su caso, la capacidad económica per cápita diaria de la unidad de convivencia, calculada también en euros/día, se determinará en función de la renta y será igual al importe total de los ingresos anuales divididos entre el número de días correspondiente al año en curso.

cve: BAO-BOB-2016a121

3. Ebaluazio ekonomikoa Administrazioak dituen eta/edo interesdunak aurkeztu dituen azken datu ekonomikoak oinarri hartuta egingo da.

4. Artikulu honetan ezarritako ondorioetarako, hauek izango dira kontuan hartu beharreko errentak eta diru-sarrerak: ordaindu behar duen pertsonak titular gisa dituen ondasun eta eskubideen etekinak eta bizikidetza-unitateko kideek titular gisa dituztenenak —lanetik eta kapitaletik eratorritakoak—, baita haien ordezko guztiak ere.

5. Lan errentatzat joko dira inoren kontura jarduteagatik lortutako ordainsariak, diruzkoak zein gauzazkoak. Era berean, jarduera ekonomikoen etekinak eta errenta-egozpenak ere zenbatuko dira.

6. Lan errentekin parekatuko dira gizarte aurreikuspenen arloko edozein araubidek onartutako prestazioak, baliabide publikoekin edo beste inoren baliabideekin finantzatzen badira.

Halaber, lan errenten ordezko sarreratzat joko dira funts publiko edo pribatuen kargura jasotzen diren haien ordezko guztiak.

Edonola ere, errenta horiei dagokienez, haien zenbateko gordina hartuko da, urtean jasotako ordainsari guztiak sartuta.

Ondare-elementuetatik (ondasunak zein eskubideak) datozen sarrera guztiak joko dira kapital-errentatzat, eta elementu horiek haien benetako etekinen arabera hartuko dira kontuan.

7. Edonola ere, erabiltzaileak jaso edo gozatzeko eskubidea dituen errentak eta edozein sarrera mota ere kontuan hartuko dira.

8. Erabiltzaileen ekarpena urtero berrikusi ahal izango da, haren ahalmen ekonomiko eguneratuaren arabera egokitzeko.

9. Honela kalkulatuko da Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza ekonomikoa: plazaren benetako kostuari edo kostu teorikoa ken onuradunak ordaindu behar duen ekarpena.

**10. artikulua.—*Laguntza ekonomikoaren berrikuspena***

1. Laguntza ekonomikoa kasu honetan berrikusiko da: laguntza ekonomikoa finkatzeko kontuan hartu diren inguruabar pertsonaletan, bizikidetza-unitatean edo egoera ekonomikoan eta ondarean aldaketarik gertatzen bada.

2. Berrikuste hori ofizioz edo alderdiak hala eskaturik hasi ahalko da.

3. Laguntza ekonomikoa berrikusten denean, berrikustea Administrazioari egotzi ahal zaion akats batek eragin duenean baino ez da sortuko itzulketarako eskubidea.

**11. artikulua.—*Elkarbizitza-unitatea***

Foru dekretu honen ondorioetarako, honako hauek joko dira bizikidetza-unitateko kidetzat: zerbitzuaren erabiltzailea eta haren ezkontidea edo izatezko bikotekidea (Izatezko bikoteak arautzen dituen Eusko Jaurlaritzaren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratutako izatezko bikotea denean).

Horrez gainera, bizikidetza-unitateko kide izango dira ere zerbitzuaren titularrarekin bizi diren seme-alaba desgaituak, mendetasunik gabeko seme-alaba adingabekoak edo 28 urte bete artekoak, langabezian edo ikasten badaude. Halakoetan, bizikidetza-unitatea egoera honetan baino ez da kontuan hartuko: xedearekin bat badator eta interesdunentzat onuragarria bada.

Horri dagokionez, babes berezia emango zaie desgaitasuna duten pertsonei eta genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeei.

V. KAPITULUA

**PLAZEN KUDEAKETA**

**12. artikulua.—*Plaza esleitzeko irizpideak***

Plaza esleitzeko prozesuaren bidez plaza esleitzeko lehentasunhurrenkera ezarriko da dekretu honetan eta aplikatu beharreko gainerako arautegian ezarritako baldintza ekonomikoak eta ondarearen arlokoak eta, hala badagokio, gizarte, familia eta osasunaren arlokoak betetzen dituzten pertsonen artean.

3. La valoración económica se realizará en base a los últimos datos económicos que consten en poder de la Administración y/o hayan sido aportados por la persona interesada.

4. A los efectos establecidos en este artículo, se considerarán rentas o ingresos computables, los rendimientos de los bienes y derechos de los que sea titular la persona obligada al pago y, en su caso, de los que sean titulares los miembros de la unidad de convivencia, derivados tanto del trabajo como del capital, así como cualesquiera otros sustitutivos de aquéllos.

5. Se entenderá por rentas de trabajo las retribuciones, tanto dinerarias como en especie, derivadas del ejercicio de actividades por cuenta ajena. Asimismo se computarán los rendimientos derivados de actividades económicas y las imputaciones de renta.

6. Se equipararán a rentas de trabajo, las prestaciones reconocidas por cualquiera de los regímenes de previsión social, financiados con cargo a recursos públicos o ajenos.

Asimismo, tendrán la consideración de ingresos sustitutivos de las rentas de trabajo, cualesquiera otras percepciones supletorias de éstas, a cargo de fondos públicos o privados.

En todo caso, las citadas rentas serán consideradas en su importe bruto y por el total de las pagas anuales percibidas.

Como rentas de capital se computarán la totalidad de los ingresos que provengan de elementos patrimoniales, tanto de bienes como de derechos, considerándose según sus rendimientos efectivos.

7. En todo caso, se computarán las rentas o ingresos de cualquier naturaleza que se tenga derecho a percibir o disfrutar.

8. Anualmente, se podrá revisar la aportación de las personas usuarias, al objeto de ajustarla a su capacidad económica actualizada.

9.La ayuda económica de la Diputación Foral de Bizkaia será la cantidad que resulte de deducir al coste real o teórico de la plaza la aportación que le corresponde pagar a la persona usuaria.

**Artículo 10.—*Revisión de la ayuda económica***

1. Se procederá a la revisión de la ayuda económica cuando se produzcan variaciones en las circunstancias personales, del núcleo convivencial y económico-patrimoniales tomadas en consideración para la fijación de la misma.

2. La citada revisión podrá iniciarse de oficio o a instancia de parte.

3. La revisión sólo dará derecho a devolución en aquellos supuestos en que la causa de la misma haya sido un error imputable a la Administración.

**Artículo 11.—*Unidad de convivencia***

A los efectos del presente Decreto Foral podrá entenderse que componen la unidad de convivencia la persona usuaria del servicio y el cónyuge o pareja de hecho cuando se trate de parejas de hecho constituidas conforme a lo dispuesto en la Ley 2/2003, de 7 de mayo, del Gobierno Vasco reguladora de las parejas de hecho.

Además, podrán formar parte de la unidad de convivencia, siempre que convivan con la persona titular del servicio, los hijos e hijas discapacitadas así como los hijos e hijas no dependientes menores de edad, o hasta los 28 años, inclusive, que estén en paro o estudiando. En este caso, sólo se tendrá en cuenta la unidad de convivencia si su aplicación es acorde con su finalidad y produce un efecto favorable para las personas interesadas.

A este respecto, se procurará la especial protección de personas con discapacidad y de mujeres que hayan sido víctimas de violencia de género.

CAPÍTULO V

**LA GESTIÓN DE LAS PLAZAS**

**Artículo 12.—*Proceso de asignación de plaza***

El proceso de asignación de plaza establece el orden de prioridad para la asignación de plaza entre las personas que cumplan todos los requisitos económico-patrimoniales y, en su caso, sociofamiliares y sanitarios previstos en este Decreto y en el resto de normativa de aplicación.

cve: BAO-BOB-2016a121

Mendetasun-egoeran dauden adinekoentzako eguneko zentroen ezaugarri bereziak kontuan hartuta, Gizarte Ekintza Sailak ahalegina egingo du erabiltzailearen ezaugarrietarako egokia den eta haren etxetik hurbil dagoen zentroan sartzeko.

**13. artikulua.—*Lehentasun-irizpideak***

1. Lehentasun-irizpide hauek erabiliko dira plazak esleitzeko prozesuan:

a) Administrazio-unitate eskudunak hautemandako premiazko beharrizan pertsonalek eragindako sarrerak.

b) Elkartzeak.

c) Lekualdatzeak.

d) Mendetasun-gradua.

e) Gradua bera denean, eskatzailearen ahalmen ekonomiko txikiagoa.

f) Eskabide normalizatua Gizarte Ekintza Saileko agirien sarrera-erregistroan sartu den data eta zenbakia edo, bestela, baliabiderik egokiena eguneko zentroa dela ezartzen duen Ebaluazio eta Orientazio Zerbitzuaren foru aginduaren data.

Babes berezia eskainiko zaie desgaitasuna duten pertsonei eta familia barruko indarkeriaren biktima diren pertsonei.

2. Artikulu honen ondorioetarako, aurreko paragrafoan aurreikusten den elkartzea eskatzeko eskubidea izango du plaza izateko eskubidea aitortu zaion pertsonaren ezkontideak edo izatezko bikotekideak (Izatezko bikoteak arautzen dituen Eusko Jaurlaritzaren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratutako izatezko bikotea denean), betiere 4. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen baditu eta bere ezkontidearekin edo izatezko bikotekidearekin bizi bada eskabidea egiten denean.

Halaber, elkartzea eskatzeko eskubidea izango dute zuzeneko edo alboko ahaideek, odolkidetasunekoak zein ezkontza bidezkoak, hirugarren mailara arte, edo plaza izateko eskubidea aitortu zaion pertsonarekin bizi den edozein pertsonak, betiere 4. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen baditu eta eguneko zentroko plaza eskatzen duenarekin bizi izan bada zentroan sartzeko eskabidea aurkezten den egunaren aurreko hamar (10) urteetan gutxienez.

**14. artikulua.—*Plazak esleitzea***

Plazak esleitu aurretik, zerbitzuko langileek telefonoz deituko diote interesdunari, edo haren legezko ordezkariari, borondatezko ordezkariari zein egitatezko zaintzan jarduten duenari.

Uko egiten bazaio artikulu honetan ezarritakoarekin bat etorriz eskainitako plazari, eskaintza egin duen funtzionarioak horren berri jasoko du eginbide baten bidez. Eskaintza behin baino ez da egingo.

Eskainitako plazari uko egin ondoren, zerbitzu eskuduneko langileek espedientean jasota utziko dute zer nahiago duen erabiltzaileak, eta ez zaio beste plazarik eskainiko harik eta plaza huts bat egon arte erabiltzaileak aukeratutako zentroan eta/edo modalitatean, betiere onuradunak daukan profilaren eta plaza esleitzeko prozesuan daukan postuaren arabera plaza esleitzea badagokio.

Edonola ere, uneren batean adierazitako nahiei uko egin nahi badie eta bere profilerako egokia den plaza huts bat dagoenean plaza bat eskaintzea nahi badu, dagokion administrazio-unitateari jakinarazi beharko dio, inguruabar hori kontuan har dezan eta berriro ere plaza bat eskain diezaioten.

Eguneko zentroan sartzeari buruzko foru aginduak honako hauek adierazi beharko ditu:

— Erabiltzailea sartuko den zentroaren izena eta helbidea.
— Zein plaza mota eman zaion.
— Plazaren kostua eta, foru dekretu honetan ezarritakoaren arabera, erabiltzaileak egin beharreko ekarpena eta Bizkaiko Foru Aldundiak emango duen laguntza ekonomikoa.
— Onuraduna noiz sartu behar den egoitzan; egun horretatik aurrera ordaindu beharko da plazari dagokion kostua.

Dadas las características singulares de los centros de día para personas mayores en situación de dependencia, el Departamento de Acción Social procurará que la persona ingrese en el centro de día que se adecúe a su perfil y que se encuentre próximo a su domicilio.

**Artículo 13.—*Criterios de prioridad***

1. Los criterios de prioridad en el proceso de asignación de plaza son:

a) Ingresos por necesidades personales apremiantes apreciadas por la unidad administrativa competente.

b) Reagrupamientos.

c) Traslados.

d) Grado de dependencia.

e) A igual grado, menor capacidad económica de la persona solicitante.

f) Fecha y número de entrada de la solicitud normalizada en el registro de entrada de documentos del Departamento de Acción Social o, en el caso, por la fecha de la Orden Foral dictada por el Servicio de Valoración y Orientación en el que se recoja el centro de día como recurso más idóneo.

Se prestará especial protección a las personas con discapacidad y a las personas víctimas de violencia intrafamiliar.

2. A efectos del presente artículo tendrá derecho a solicitar el reagrupamiento previsto en el párrafo anterior el o la cónyuge o pareja de hecho, conforme a lo dispuesto en la Ley 2/2003, de 7 de mayo, del Gobierno Vasco reguladora de las parejas de hecho, de una persona a la que se le hubiera reconocido su derecho a plaza, siempre y cuando cumpla los requisitos previstos en el artículo 4 y conviva con su cónyuge o pareja de hecho en el momento de realizar la solicitud.

Asimismo se reconoce el derecho al reagrupamiento a parientes en línea directa o colateral, por consanguinidad o afinidad, hasta el tercer grado, así como cualquier persona que conviva con una persona a la que se le hubiera reconocido su derecho a plaza siempre y cuando cumpla los requisitos previstos en el artículo 4 y haya convivido con la persona solicitante de plaza de centro de día, como mínimo, durante los 10 años anteriores a la fecha de solicitud de ingreso.

**Artículo 14.—*Asignación de plazas***

Con carácter previo a la asignación, personal del Servicio se pondrá en contacto vía telefónica con la persona interesada o, su representante legal o su representante voluntario/a o la persona que ejerza la guarda de hecho.

Si se rechazara la plaza ofrecida en los términos previstos en este artículo, el funcionario o la funcionaria que hubiera ofrecido la plaza dejará constancia del mismo mediante la oportuna diligencia. Sólo se hará un ofrecimiento.

Una vez rechazada la plaza ofrecida, el personal del Servicio competente dejará constancia en el expediente de la preferencia de la persona usuaria y no se volverá a ofrecer una nueva plaza hasta que no haya una vacante en el Centro y/o la modalidad que desea y le corresponda según el perfil y el puesto que ocupe en el proceso de asignación de plaza.

En todo caso, si en algún momento desea renunciar a las preferencias expresadas y que se le ofrezca una plaza donde haya una plaza vacante adecuada a su perfil, podrá comunicárselo a la unidad administrativa correspondiente, con el fin de que sea tenida en cuenta esta circunstancia y se le vuelva a ofrecer una nueva plaza.

La Orden Foral de ingreso en el Centro de día deberá indicar:

— La denominación y dirección del centro de ingreso.
— Modalidad de plaza concedida.
— El coste de la plaza, la aportación a realizar por la persona usuaria y la ayuda económica a otorgar por la Diputación Foral de Bizkaia de acuerdo con lo previsto en el presente Decreto Foral.
— La fecha en la que deba producirse el ingreso y a partir de la cual comienza la obligación de pago del coste de la plaza.

cve: BAO-BOB-2016a121

— Zer ondorio izango dituen ezarritako egunean dagokion zentroan ez sartzeak bidezko arrazoirik gabe.
— Zentrora egokitzeko aldiaren iraupena, halakorik badago, eta hartara ez egokitzeak izango dituen ondorioak.
— Ordura arte jasotako prestazioetatik eguneko zentroan sartzearekin bateragarriak direnetan egingo diren aldaketak, edo, hala badagokio, bateragarriak ez direnak azkentzeko erabakia.

VI. KAPITULUA

**ALTA EMATEA MENDETASUN-EGOERAN DAUDEN ADINEKOENTZAKO EGUNEKO ZENTROETAN**

**15. artikulua.—*Eguneko zentro batean sartzea***

Erabiltzaileak sartzea egokitu zaielako edo beste eguneko zentro batetik aldatu dituztelako sartu ahal izango dira zentroetan.

**16. artikulua.—*Egoitzan sartzea***

Plaza esleitu ondoren, laguntza ekonomikoa emateko foru aginduan ezarritako egunean sartu beharko da onuraduna zentroan.

Interesduna ezarritako egunean sartzen ez bada eta horren arrazoia ezin bazaio egotzi Foru Administrazioari, ulertuko da pertsona horrek uko egiten diola esleitutako zentroan sartzeko eskubideari, eta, ondorioz, hari emaniko plaza hori plaza esleitzeko prozesuan sartutako dagoen beste pertsona bati esleituko zaio berehala.

Justifikatutako arrazoi bat dela medio, onuraduna ezarritako egunean sartzen ez bada, aurreko paragrafoan aipatutako uko egitea ezin izango da egindakotzat jo, eta, beraz, plaza hutsa plaza esleitzeko prozesuan sartutako beste pertsona bati esleitu bazaio, eta onuraduna esleitzeko prozesuaren barruan sartuko da berriro.

**17. artikulua.—*Aurretiazko informazioa***

Zentroan sartu aurretik edo sartzeko unean, zentroko zuzendaritzak zentroko barne araubideari buruzko arautegiaren eta bizikidetza-arauen berri emango du. Aldi berean, gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharrei buruzko informazioa ere emango dio, bai eta arlo horretan aplikatzekoa den beste araudi autonomiko edo foralen gaineko beste edozein informazioa ere, eta, horiez gainera, organo eskudunek emaniko jarraibide, ildo edo argibide guztien berri ere.

Zentroan sartzeak berekin dakar erabiltzaileak eta haren senideek zentroaren arauak onartzea.

**18. artikulua.—*Egokitzeko aldia***

Erabiltzaileak zentroko ezaugarrietara eta funtzionamendura egokitzeko aldi bat bete beharko du administrazio-unitate eskudunak ezarritako kasuetan.

Egokitzeko aldi hau beren-beregi jasoko da zentroak erabiltzaile berriarentzat prestatutako arreta indibidualizatua emateko planean (AIP).

Arreta indibidualizatua emateko planaren bidez laguntza teknikoa jaso arren, zentroko langileak ohartzen badira erabiltzaile berria ez dela ondo egokitu zentrora eta/edo profila ez dela egokia, zentroko zuzendaritzak horren berri emango die erabiltzaileari eta/edo haren legezko edo borondatezko ordezkariari eta Gizarte Ekintza Sailari. Espedientea aztertu ondoren, proposamen egokiena egingo da, eta beste baliabide sozial batzuen laguntza jasotzeko aukeraren berri emango zaio erabiltzaileari.

**19. artikulua.—*Plaza-erreserba***

Eguneko zentroaren erabiltzaileek eguneko zentrotik kanpo dauden aldietan plaza gordetzeko eskubidea izango dute, baldintza hauetan:

a) Egoitzatik euren borondatez irteten direnean, urte naturalean hirurogei (60) egun baino gehiago ez badaude kanpoan (astelehenetik ostiralera daudenen kasuan) edo hogei (20) egun baino gehiago (larunbat-igandeetan daudenen kasuan), administrazio-unitate eskudunak ohiz kanpoko inguruabarrak hautematen dituenean izan ezik.

— Los efectos de la falta de ingreso en el centro en la fecha prevista sin causa justificada.
— Duración, en su caso, del periodo de adaptación al centro y efectos de la falta de adaptación al mismo.
— La modificación de las prestaciones que viniera percibiendo y que resulten compatibles con el ingreso en el centro de día y/o, en su caso, la extinción de aquellas que resulten incompatibles.

CAPÍTULO VI

**SITUACIÓN DE ALTA EN EL CENTRO DE DÍA PARA PERSONAS MAYORES EN SITUACIÓN DE DEPENDENCIA**

**Artículo 15.—*Incorporación a un centro de día***

Las personas usuarias podrán incorporarse a los centros por ingreso o por traslado desde otro centro de día.

**Artículo 16.—*Ingreso***

Asignada la plaza, la persona deberá ingresar en el centro en la fecha señalada en la Orden Foral de concesión de ayuda económica.

Si no se produce el ingreso en la fecha señalada, por causas no imputables a la Administración Foral, se entenderá que dicha persona renuncia a su derecho de ingreso en el centro asignado y, en consecuencia, se procederá a la reasignación inmediata de la vacante que se le había concedido en favor de otra persona en proceso de asignación de plaza.

Si el ingreso no llega a producirse en la fecha señalada por causa o causas justificadas, no podrá entenderse producida la renuncia a que se refiere el párrafo anterior, por lo que si se hubiera procedido a la reasignación de la vacante en favor de otra persona incluida en el proceso de asignación de plaza, la persona quedará de nuevo en situación de este proceso de asignación.

**Artículo 17.—*Información previa***

Con carácter previo al ingreso o en el mismo momento del ingreso, la dirección del centro informará acerca del Reglamento de régimen interno y de las normas de convivencia del centro, y le facilitará, en el mismo acto, información sobre los derechos y obligaciones de las personas usuarias y profesionales de los servicios sociales así como cualquier otra información relativa a la normativa autonómica y foral que resulte de aplicación así como a las instrucciones y directrices o cualquier clase de indicación dictada por los órganos competentes.

El ingreso conllevará la aceptación de sus normas por parte de la persona usuaria y sus familiares.

**Artículo 18.—*Periodo de adaptación***

La persona usuaria deberá completar un periodo de adaptación a las características y funcionamiento del centro en aquellos supuestos fijados por la unidad administrativa competente.

Este periodo de adaptación deberá ser especialmente considerado dentro del plan de atención individualizado (PAI) elaborado por el centro para la persona usuaria de nuevo ingreso.

Si pese al apoyo técnico llevado a cabo a través del plan de atención individualizado, el personal del centro observara inadaptación de la persona usuaria al mismo y/o no idoneidad del perfil, la dirección del centro informará en este sentido a la persona usuaria y/o a su representante legal o voluntario, así como al Departamento de Acción Social. Estudiado el expediente, se elaborará la propuesta que considere más adecuada y, en su caso, se le informará de la posibilidad de obtener el apoyo de otros recursos sociales.

**Artículo 19.—*Reserva de plaza***

Las personas usuarias de centro de día tendrán derecho a reserva de plaza durante los periodos de ausencia del centro de día en las siguientes condiciones:

a) En el supuesto de ausencia voluntaria, siempre que el periodo de ausencia no sea superior a 60 días por año natural, para la modalidad de lunes a viernes y 20 días por año natural en la modalidad de sábado y domingo, salvo que concurran circunstancias excepcionales apreciadas por la unidad administrativa competente.

cve: BAO-BOB-2016a121

b) Ospitalera, zentro psikiatriko batera edo gisakoren batera sartzeagatik ezinbestekoa denean egoitzatik ateratzea, plaza gordetzeko eskubidea ospitalean dauden bitartean mantenduko da.

Gordetako plazari dagokion zenbatekoa erabiltzaileak ordainduko du oso-osorik, eta ez da inolako deskonturik egingo haren ekarpenean.

VII. KAPITULUA

**ERABILTZAILEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK**

**20. artikulua.—*Eguneko zentroen zerbitzuaren erabiltzaileen eskubideak***

Eguneko zentroen zerbitzuaren erabiltzaileek dekretu honetan araututako banakako laguntza ekonomikoak jasotzeko eskubidea izango dute. Halaber izango dituzte, oro har, Gizarte Zerbitzuei buruzko 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legean eta hura garatzeko araudietan aipatzen diren eskubide guztiak.

**21. artikulua.—*Eguneko zentroen zerbitzuaren erabiltzaileen betebeharrak***

1. Zerbitzua eskatzen dutenek edo erabiltzen dutenek Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean eta hura garatzen duen araudian ezarritako betebehar guztiak bete beharko dituzte, oro har.

2. Halaber, honako betebehar hauek izango dituzte bereziki:

a) Egiazko datuak ematea, zerbitzua esleitzeko eta zuzen emateko.

b) Zerbitzua emateko baldintzetan eragina izan dezakeen aldaketaren bat gertatzen bada inguruabar pertsonaletan, bizikidetza-unitatean edo egoera ekonomikoan eta ondarean, aldaketen berri eman beharko diote Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari.

c) Baimena eman behar diote Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari Ogasun eta Finantzen Foru Sailaren fitxategietan eta beste zerga agentzia batzuenetan, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalean eta bestelako pentsio edo sarreren erakunde ordaintzaileetan behar diren kontsulta guztiak egiteko. Baimen hori dekretu honen ondorioetarako bizikidetza-unitateko kide diren guztiek eman beharko dute.

d) Baimena eman behar diote Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari bizi diren herriko udaletxeko erroldaren bulegoan behar diren kontsultak egiteko eta ohiko egoitza eta helbideari buruz behar diren datuak eta txostenak eskuratzeko, zerbitzuan sartzeko baldintzak betetzen direla bermatzeko. Baimen hori dekretu honen ondorioetarako bizikidetza-unitateko kide diren guztiek eman beharko dute.

e) Baimena eman behar diote Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari datuak eskatzeko eta kontsultak egiteko finantza- eta aurrezki-erakundeetan, erakunde horietan duten edozein ondasun edo eskubideri buruz. Baimen hori dekretu honen ondorioetarako bizikidetza-unitateko kide diren guztiek eman beharko dute.

f) Baimena eman behar diote Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari behar diren kontsultak egiteko, eta, era berean, zerbitzuaren eskatzailearen edo erabiltzailearen egoera sanitario eta sozialari buruz beharrezkoak diren datu eta txosten guztiak eskatzeko edo emateko Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuari eta osasun eta esku-hartze sozialaren arloko erakunde, elkarte edo unitateei, teknikaren eta laguntzaren aldetik zerbitzu hori behar bezala ematen dela bermatzeko.

g) Baimena eman behar diote Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari, datu pertsonalak babesteko legerian ezarritakoaren arabera, behar diren datu sanitario, sozial eta ekonomiko guztiak uzteko zerbitzua ematen duten zentroei eta ebaluazioak eta jarraipen-jarduketak egiteko kontratatutako erakundeei, teknikaren eta laguntzaren aldetik, zerbitzu hori behar bezala ematen dela eta zerbitzua emateko baldintzak zerbitzuaren erabiltzaileak sartzeko onartutako baldintza eta betebeharren arabera mantentzen direla bermatzeko.

b) En caso de ausencia obligada por internamiento en algún centro hospitalario, psiquiátrico o similar el derecho a reserva de plaza se mantendrá mientras dure el internamiento.

Dicha reserva de plaza será abonada en su totalidad por la persona usuaria, sin que se produzca, por tanto, descuento alguno en su aportación.

CAPÍTULO VII

**DERECHOS Y OBLIGACIONES DE LAS PERSONAS USUARIAS**

**Artículo 20.—*Derechos de las personas usuarias del servicio de centros de día***

Las personas usuarias del servicio de centros de día tendrán derecho a recibir las ayudas económicas individuales reguladas en el presente Decreto. Asimismo, tendrán en general, todos aquellos derechos señalados en la Ley de 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales y su normativa de desarrollo.

**Artículo 21.—*Obligaciones de las personas usuarias del servicio de centros de día***

1. Las obligaciones de las personas solicitantes o usuarias serán, en general, todas aquellas señaladas en la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales y la normativa que la desarrolle.

2. Asimismo, y con carácter específico, estarán obligadas a:

a) Facilitar datos veraces para la concesión y correcta prestación del servicio.

b) Comunicar al Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia cualquier variación en sus circunstancias personales, del núcleo convivencial y económico-patrimoniales que pudieran afectar a las condiciones de prestación del servicio.

c) Autorizar al Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia para realizar todas las consultas que fueran necesarias en los ficheros del Departamento Foral de Hacienda y Finanzas y en los correspondientes a las otras agencias tributarias, así como en el Instituto Nacional de la Seguridad Social y otras entidades pagadoras de pensiones y otros ingresos. Esta autorización, deberá realizarse, asimismo, por cada una de las personas que conforman la unidad de convivencia a los efectos previstos en el presente Decreto.

d) Autorizar al Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia para realizar todas las consultas necesarias en la Oficina del Padrón Municipal del Ayuntamiento de residencia, y obtener cuantos datos e informes fueran necesarios en relación a la residencia y domicilio habitual con la finalidad de garantizar el cumplimiento de los requisitos exigidos para el acceso al servicio. Esta autorización, deberá realizarse, asimismo, por cada una de las personas que conforman la unidad de convivencia a los efectos previstos en el presente Decreto.

e) Autorizar al Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia para solicitar datos y realizar consultas a entidades financieras y de ahorro sobre cualquier bien o derecho que pudieran tener depositado en ella. Esta autorización, deberá realizarse, asimismo, por cada una de las personas que conforman la unidad de convivencia a los efectos previstos en el presente Decreto.

f) Autorizar al Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia para realizar todas las consultas, así como para solicitar y facilitar datos e informes, al Servicio Vasco de Salud (Osakidetza) y a otras instituciones, entidades o unidades sanitarias y de intervención social, que fueran necesarias con relación a la situación sanitaria y social de la persona solicitante o usuaria del servicio, con la finalidad de prestar el mismo con garantía de acierto técnico-asistencial.

g) Autorizar al Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia para ceder, en los términos previstos en la legislación de protección de datos de carácter personal, a los centros que presten el servicio y a las entidades contratadas para la realización de valoraciones y actuaciones de seguimiento, los datos de tipo social, económico y sanitario que sean necesarios a fin de garantizar la prestación del servicio en condiciones de garantía técnico-asistencial y garantizar el mantenimiento de las condiciones de prestación del servicio de acuerdo con los requisitos de acceso y las obligaciones asumidas por la persona usuaria.

cve: BAO-BOB-2016a121

h) Baimena eman behar diote Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari, fitxategi informatizatuetan sartutako datu pertsonalak, estatistikak egiteko eta zientzia-ikerketarako nahiz Gizarte Ekintza Sailarenak diren zereginetarako datu pertsonalak babesteko legerian ezarritakoaren arabera erabil ditzan.

i) Baimena eman behar diete zerbitzua ematen duten zentroei datu sozialak, ekonomikoak eta sanitarioak emateko Gizarte Ekintza Saileko Ikuskapen eta Kontrol Zerbitzuari, zerbitzu horrek esleituta dituen gizarte zerbitzuen arloko erakunde, zerbitzu eta zentroen ikuskapen eta ebaluazio eginkizunak betetzeko beharrezkoak direnean.

**22. artikulua.—*Ordaintzeko betebeharra***

Bizkaiko Foru Aldundiaren eta erabiltzailearen ordaintzeko betebeharra eguneko zentroan sartzeko unean sortuko da.

Erabiltzaileak eguneko zentroari ordainduko dio zuzenean foru dekretu honetan xedatutakoa dela bide ordaindu behar duen zenbatekoa.

Halaber, Bizkaiko Foru Aldundiak eguneko zentroari ordainduko dio zuzenean dagokion gainerako zatia, zentroak eskatzen zaizkion agiriak eta frogagiriak Gizarte Ekintza Sailera bidali ondoren. Hilean behin bidali beharko ditu.

VIII. KAPITULUA

**JARRAIPENA EGUNEKO ZENTROETAN**

**23. artikulua.—*Jarraipena***

Pertsona bat eguneko zentroan sartzean, zentroak hari buruzko txostena bidaliko dio arlo horretan eskumena duen administrazio-unitate foralari, bai aldian-aldian, bai osasun- edo/eta gizarteinguruabarren arabera komeni denean. Zehazki, Gizarte Ekintza Sailean erabiltzaile horren kasua esleiturik duen teknikariari igorriko dio txostena.

Pertsona bati eman zaion baliabidea bere garapen pertsonal eta psikosozialerako nahiz osasunerako egokiena dela bermatzeko, erreferentziazko teknikariak akonpainamendua bermatu behar du, eta, unean-unean, neurririk egokienak proposatu ahal izango ditu, are, behar izanez gero, eguneko zentroaren zerbitzua amaitu eta bertan baja hartzeko prozedura abiaraztea ere.

IX. KAPITULUA

**EGUNEKO ZENTROTIK LEKUALDATZEA**

**24. artikulua.—*Lekualdatzearen arrazoiak***

Lekualdatzeak egiteko era:

a) Zentroko zuzendaritzak eskaera arrazoitua egin ondoren edo administrazio-unitate eskudunak hautemandako arrazoiengatik.

b) Erabiltzaileak berak eskatuta, edo haren legezko ordezkariak, borondatezko ordezkariak edo egitatezko zaintza egiten duen pertsonak eskatuta.

Erabiltzaileak berak eskatzen badu lekuz aldatzeko, ezin izango da eman baimena foru dekretu honen 18. artikuluan ezarritako egokitzeko aldia igaro arte, behar bezala justifikatutako aparteko kasuetan izan ezik.

Erabiltzaile bat, berak eskatuta edo, bestela, bere legezko edo borondatezko ordezkariak eskatuta, eguneko zentro batetik beste batera aldatu ondoren, ezin izango da eman beste baimenik lekualdaketa horretatik urtebete igaro arte, behar bezala justifikatutako aparteko kasuetan izan ezik.

Lekualdatzea kasu hauetan ukatu ahal izango da: erabiltzaileak dekretu honetan ezarritako betebeharrak betetzen ez baditu edo, behar bezala justifikatutako arrazoien ondorioz, lekualdaketa komenigarria ez bada.

h) Autorizar al Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia para que los datos de carácter personal que se integren en ficheros informatizados puedan ser utilizados con fines de producción de estadísticas e investigación científica y para las funciones propias del Departamento de Acción Social en los términos previstos por la legislación de protección de datos de carácter personal.

i) Autorizar a los centros que presten el servicio a ceder al Servicio de Inspección y control del Departamento de Acción Social los datos de tipo social, económico y sanitario que sean necesarios para el cumplimiento de las funciones de inspección y evaluación de las entidades, servicios y centros de servicios sociales que éste tiene atribuidos.

**Artículo 22.—*Obligación de pago***

La obligación de pago por parte de la Diputación Foral de Bizkaia y por parte de la persona usuaria nacerá en el momento en que se produzca el ingreso en el centro de día.

La persona usuaria abonará directamente al centro de día la cuantía que le corresponda abonar en virtud de lo dispuesto en el presente Decreto Foral.

Asimismo, la Diputación Foral de Bizkaia abonará directamente al centro de día la cantidad restante que le corresponda, previa remisión mensual por parte de éste al Departamento de Acción Social de los documentos y justificantes que le sean requeridos.

CAPÍTULO VIII

**SEGUIMIENTO EN CENTROS DE DÍA**

**Artículo 23.—*Seguimiento***

Una vez incorporada la persona al centro de día, éste enviará, de forma periódica o cuando las circunstancias médicas y/o sociales así lo aconsejen, informe de la persona usuaria a la unidad administrativa foral competente. En concreto se remitirá al técnico o técnica que, dentro del Departamento de Acción social, tenga asignada la coordinación de su caso.

Con el fin de garantizar que el recurso concedido sea el más adecuado a la evolución personal, médica y psico-social de la persona usuaria, este técnico o técnica de referencia garantizará el acompañamiento y podrá proponer, en cada momento, aquellas medidas que se consideren más oportunas incluido, si concurrieran las circunstancias, el inicio del correspondiente procedimiento de extinción y baja de centro de día.

CAPÍTULO IX

**TRASLADOS DE CENTRO DE DÍA**

**Artículo 24.—*Motivos de traslado***

Los traslados podrán realizarse:

a) Por solicitud motivada de la dirección del centro o por motivos apreciados por la unidad administrativa competente.

b) Por solicitud de la propia persona, en su caso, a instancia de su representante legal o representante voluntario/a o persona que ejerza la guarda de hecho.

Los traslados a instancia de la persona no podrán autorizarse antes de que transcurra el periodo de adaptación al centro previsto en el artículo 18 del presente Decreto Foral, salvo por razones excepcionales debidamente justificadas.

Una vez autorizado y realizado un traslado de centro de día a instancia de la persona o, en su caso, de su representante legal o representante voluntario/a, no podrá autorizarse un nuevo traslado hasta que transcurra un año desde el anterior, salvo que concurran razones excepcionales debidamente justificadas.

Se podrá denegar el traslado de personas usuarias que no cumplan con las obligaciones recogidas en el presente Decreto o cuando razones debidamente justificadas no hagan recomendable dicho traslado.

cve: BAO-BOB-2016a121

**25. artikulua.—*Zentroz aldatzeko eskaerak***

Zentro batetik beste batera aldatzeko eskabidea idatziz aurkeztu behar du eskatzaileak edo haren legezko edo borondatezko ordezkariak, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko agirien sarrera-erregistroan (Ugaskobidea, 3, 2. solairua. Bilbo-48014). Horrez gainera, eskabideak Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38. artikuluan edo haren ordezko araudian ezarritako edozein bide erabiliz ere bideratu ahal izango dira.

**26. artikulua.—*Lekualdatzeko prozeduraren instrukzioa***

Lekualdaketa arloan eskumena duen administrazio-unitateak eskatuta egiten bada, inguruabar hori eta lekualdatzeko arrazoiak jakinarazi beharko zaizkio erabiltzaileari edo haren legezko edo borondatezko ordezkariari, eta hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio alegazioak aurkezteko, aparteko arrazoiengatik lekualdaketa presaz egitea komeni denean izan ezik. Kasu horretan, berehala jakinaraziko zaio inguruabar hori erabiltzaileari edo haren legezko edo borondatezko ordezkariari.

**27. artikulua.—*Lekualdatzeko prozeduraren ebazpena***

Prozeduraren instrukzioa egin ondoren, Gizarte Ekintzako foru diputatuak lekualdaketa onartzea edo ukatzea ebatziko duen foru agindua emango du.

Erabiltzaileak zentro jakin batera aldatzeko eskatzen badu, baimena eman daiteke nahiz eta ematen den unean zentro horretan plazarik ez egon; hain zuzen ere, baimena eman ondoren, eskatzailea plaza bat noiz hustuko zain geratuko da, foru dekretu honetan ezarritako lehentasun-irizpideak eta plazaren ezaugarriak eta erabiltzailearen profila kontuan hartuta.

X. KAPITULUA

**ESKUBIDEAREN IRAUNGIPENA**

**28. artikulua.—*Azkentzearen arrazoiak***

1. Laguntza ekonomikoa jasotzeko eskubidea kasu hauetan azkenduko da:

a) Heriotza.

b) Uko egitea, berariaz edo isilbidez. Edonola ere, erabiltzaile batek zentroa uzten badu eta argi eta garbi adierazten badu ez dela itzuliko, plaza eskubideari uko egin diola ulertuko da.

c) Zentroan sartu ondoren, egoera hauetakoren bat ematen bada:

1) Osasun-laguntza espezializatua eta/edo iraunkorra behar izatea.

2) Zaintza-maila altua behar izatea eta eguneko zentroaren dotazioek ez izatea ez ahalmenik ez aukerarik halako zaintzak eskaintzeko.

3) Gaixotasun infekto-kutsakorren bat izatea, kutsaduraren bidea dela eta, egoitza-zentroan artatu ahal denean izan ezik.

4) Ondorio antiterapeutikoak jasateko arriskua egotea eguneko zentroa erabiltzearen eraginez (garraioa, garabien eta beste laguntza tekniko batzuen erabilera, beste pertsona batzuekiko harremanak, etab.)

5) Kasuan-kasuan dagokion tratamenduari uko egitea.

6) Bizikidetza eragotz dezaketen edo zentroko gainerako erabiltzaileei edo langileei arriskua eragin diezaieketen portaera-nahasmenduak izatea.

7) Eguneko zentroan dagoen bitartean ez izatea gai eserita egoteko.

**Artículo 25.—*Solicitudes de traslado***

Las solicitudes de traslado deberán presentarse por escrito por la persona solicitante o su representante legal o voluntario/a en el Registro de entrada de documentos del Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia, sito en Camino Ugasko, 3, 2.ª planta, de Bilbao-48014. No obstante, también podrán cursarse en cualquiera de las formas previstas en el artículo 38 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común o normativa que lo sustituya.

**Artículo 26.—*Instrucción del procedimiento de traslado***

Cuando el traslado sea a instancia de la unidad administrativa competente deberá comunicarse esta circunstancia y las razones del mismo a la persona usuaria o, en su caso, a su representante legal o voluntario/a, concediendo un plazo de diez (10) días hábiles para la presentación de alegaciones, salvo que razones excepcionales, aconsejen realizar el traslado de forma urgente, en cuyo caso, se procederá de manera inmediata a comunicar esta circunstancia a la persona usuaria o a su representante legal o a su representante voluntario/a.

**Artículo 27.—*Resolución del procedimiento de traslado***

Instruido el procedimiento, el/la Diputado/a Foral de Acción Social dictará la Orden Foral resolutoria concediendo o denegando el traslado.

En los supuestos de solicitud de traslado a un centro concreto, realizada a instancia de la persona usuaria, podrá autorizarse el traslado aunque no hubiera plaza disponible en el mismo en el momento de la autorización, quedando la misma a la espera de que se produzca una vacante, de acuerdo con los criterios de prioridad establecidos en el l presente Decreto Foral, y de las características de la vacante y el perfil de la persona usuaria.

CAPÍTULO X

**EXTINCIÓN DEL DERECHO**

**Artículo 28.—*Causas de extinción***

1. El derecho a la ayuda económica podrá extinguirse por alguna de las siguientes causas:

a) Fallecimiento.

b) Renuncia expresa o tácita. En cualquier caso, se entenderá por renuncia el hecho de que la persona abandone el centro y/o manifieste de forma inequívoca su intención de no retornar.

c) Concurrir de forma sobrevenida alguna de las siguientes circunstancias:

1) Precisar una asistencia sanitaria especializada y/o permanente.

2) Precisar elevado nivel de cuidados fuera del alcance y posibilidades de las dotaciones propias del centro de día.

3) Padecer enfermedades infecto-contagiosas, excepto aquellos casos en que, en función de su vía de transmisión, se consideren susceptibles de poder ser atendidos en un centro de día.

4) Sufrir efectos anti terapéuticos derivados de la utilización del centro de día (transporte, uso de grúas y otras ayudas técnicas, relaciones con otras personas, etc.).

5) Rechazar el tratamiento que corresponda.

6) Padecer trastornos de conducta que puedan dificultar la convivencia u originar algún tipo de riesgo para el resto de personas usuarias y trabajadoras del centro.

